



Gfi Norteko historia laburra

Gfi Norten izandako gertaerei buruzko informazio zehatza berri eman dizuegu, baina "legealdi sindikal" hasiera honetan gaurko egoerara eraman gaituenaren berrikustea egitea beharrezkoa dela uste dugu.

Gfi Norten hasiberriak zaretenentzat, edo baita denboraldi bat daramazuenentzat ere, azken urteetan gertatutakoaren inguruan balantze orokor bat egitea beharrezkotzat hartzen dugu, gure eguneroko lanean zenbait egoerek ziurgabetasuna zergatik sortzen duten azaltzeko.

Gfi Norteko enpresa-batzordea 2007an osatu zen. Gure lan-baldintzak hobetzea zen helburua. Soldata-igoerak arbitrarioki egiten ziren. Zure soldata eguneratzeko modurik ohikoena "kontraeskaintza bidea" zen, beste enpresa batera zihoazela iragarritz.

Estatuko (Aholkularitza) hitzarmenetik hitzarmen probintzialera (Bulego eta Langelak) pasa genuen. Aldaketa honek gure oinarritzko soldata hobetzea eta "Gutxieneko igoera" kontzeptua (Gfi Norteko langile guztiontzat bermatutako urteroko igoera minimoa) sartzea suposatzen zuen.

Baina poztasunak gutxi dirau behartsuaren etxean eta hitzarmenaren aldaketa lortu eta gero, enpresak ez du hitzarmen berri hau onartzen eta bi jokaera-bide hasten ditu:

- 2009an 193 langileri beren soldata hitzarmen probintzialak ezartzen duen arabera ez igotzeko kategoria jaisten die. Jokaera honekin, enpresak "zenbateko absortziogarri"-en soberakinak sortzen ditu soldatetan: langileen soldata betirako izozteko balio izango duen mekanismoa, azken finean.
- 2011n eta 2012an bi "hitzarmenean soldatei buruz ezarritakoa ez aplikatzeko" prozesuak hasten dituzte. 2011koa LHK-an* (Lan Harremanen Kontseilua) gelditzen da, ELAren aholku juridikoarekin eta ELA atalak liderra izandako lanarekin. 2012an enpresak berak erretiratzen du eta bukatutzat ematen du hitzarmenean soldatei buruz ezarritakoa ez aplikatzeko prozesua. Nola ez, enpresak ez du bere kabuz inongo atzeratzerik ordaintzen, kobratu nahi duenak banaka salatu beharko du.

2012 eta 2013an zehar erreforma laboraleko aldia hasten dugu. Gfi Norte haiekin erabat bat dator:

- Jada ez dago urteroko igoerak ordaintzera behartuta, antzinatasuna barne, izan ere, erreforma laboralak **ultraktibitatea** kentzean egitea posiblea zaie. Ez dute ezta balantze ekonomikoetan zifrarik ezkutatu behar.
- Kaleratzeak merkatzen dira. Erreformak kaleratze objektiboak (20 egun urte bakoitzagatik / 12 hileko soldata gehienez) egitea baimentzen die "etekin jaitsiera" dagoenean soilik.
- Kaleratze bide berriak esploratzen dira: Diziplinazkoak. Amatasun lanaldi-laburtzea zuen langile bat kaleratzen da.
- Kontratu berrietan legez kanpoko eta gehiegizko klausulak sartzen dira.

Eta 2014ra iristen gara. Bulego eta Langeletako Hitzarmenak bere iraunaldia galtzen du. Enpresak **nahasketa** egitea aukeratzen du: kontratazio berrientzat estatuko hitzarmenaren kategoriak erabiltzen ditu (oinarritzko soldata baxuagoak), soldata-eskala bikoitzak sortuz, bitartean hitzarmen bateko edo besteko artikulua erabiltzen ditu bere egokitasunera.

Ekimen sindikala

Gfi Norteko ELA sindikatu atala lanean jarri da. Orain arte egin dugun **benetazko** lana laburtzen dizuegu.

- Era ofizialean eta idatziz, Bilboko bulegoetarako baldintza onetan dagoen jangela bat eskatu diogu enpresari. Laster ekiteko aurreikusita baldin badago, bilduko dituen baldintzak jakin nahi ditugu, lege-betekizun guztiak bete ditzan.
- Lan-Ikuskapeneko eskari batekin darraigu, izan ere, enpresak ez digu oraindik Euskalteleko subrogatutako 37 langilen kontratuko kopiarik eman.
- Joan den Azaroaren 16an legezko eskakizun bat aurkeztu genuen epaitegian, enpresak Bizkaiko Bulego eta Langeletako hitzarmena Gfi Norteko langile guztiei modu kautelarrean aplikatzeko, **ELAK** enpresak aldebakarreko hitzarmen aldaketari **ezarritako salaketak epai irmoa izan arte**. Legezko eskakizun hau **lan-arloko 4 zk. epaitegiak ukatu du** Azaroaren 26an.
- Gizarte-Segurantzari kontsulta egin ondoren, **Gfi Norteko langile kopurua 488koa dela** jakin izan dugu.
- Osatu diren **lan-talde guztietan** (komunikatuak, soldatak, postak, itzulpenak, aparteko orduak eta Webak) gaude, Enpresa-Batzordeagatik eta Enpresa-Batzordearentzat lan egiteko gure borondatea berriro ere adieraziz, hau da, Gfi Norteko plantilla osorako lan egiteko.

Gure zuzendari nagusiak bere soldata %19,4 igotzen du

Journal du Net-en arabera, Vicente Rouaix, GFI Informatica-ko CEOa azken urtean 909.026€ irabazi du

Xehetasuna hauxe izango litzateke:

- ✓ Bere karguagatik 600.000€.
- ✓ Tasa gehigarriagatik 270.000€.
- ✓ Ordainketa finkoagatik 36.000€.
- ✓ Espezieko prestazioagatik 3.026€.



Berri osoa hemen ikusi dezakezu: <http://www.journaldunet.com/solutions/emploi-rh/esn-ex-ssii-salaires-des-patrons/>